



INFORMAZIO ORRIA

Dohaintzak (higiezinaren gaineko dohaintza izan ezik) (bide telematikoz)

Noiz aurkeztu daiteke Zergabidez?

Oinordetzen gaineko zergari lotutako edozein egitate bide telematikoz, Zergabide plataforma erabilia, aurkez daiteke. Hala ere, **ezingo da bide telematikoz aurkeztu** ondoko zerga egitate hauetan:

- **Eskritura publiko** batean dokumentatu denean.
- **Usufruktua amaitzen** denean.
- **Ibilgailu bat eskuratzea** denean.

Hiru kasu horietan, nahitaezkoa izango da paperean aurkeztea.

- ✓ **OHARRA:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin hitzarmena formalizatu duten kolektiboetako subjektuei ez zaie murrizketa hori aplikatuko.

Nork aurkeztu behar du? (2017-12-30etik aurrera sortutako zerga egitateak)

1. **Dohaintza jasotzen duen pertsonak**, baldin eta ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapen egunean (kontratua egiten denean).

Oro har, **Gipuzkoako araudia** aplikatuko da (3/1990 FA, urtarrilaren 11koa).

Hala ere, **Estatuko araudia** aplikatuko da, eta ez Gipuzkoakoa, baldin eta dohaintza jasotzen duenak ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapen egunean, baina zergaren sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean.

2. Dohaintza jasotzen duenak **atzerrian** badu ohiko bizilekua, atalarekin kontsulta egin (943 113 000).

Zenbat egun daukazu aitorpena aurkezteko?

30 lanegun, dohaintza egin ondorengo egunetik aurrera.

Zein pauso egin behar dira?

1. Sinadura elektronikoa:

671 eredia Zergabidea plataformaren bidez aurkezteko, beharrezkoa izango da gako operatiboa, BaKQ edo ziurtagiri digitala erabiltzea.

Kontuan izan dohaintza-zerga aurkezteko, bakoitzak bere sinadura elektronikoa izan beharko duela, edo sinadura elektronikoa daukan hirugarren bati ordezkaritza eman izana.



2. Bildu itzazu ondoko agiriak zure ordenagailuan:

- ❖ **Dohaintza dokumentuaren jatorrizko kopia** (dohaintzaren zenbatekoa jarri behar du).
- ❖ **Dohaintza eman eta jasotzen dutenen Nortasun Agirien fotokopia.**
- ❖ **Ahaidetasunaren justifikazio dokumentala** (hala nola, famili liburua). Ahaidetasun edo harremana 3. Taldekoa bada (lehengusu, koinatu/a, arrotza..), ez da beharrezkoa agiri hori aurkeztea.

3. Sartu Zergabidea plataformara:

Sartu plataforman, identifikatu zure sinadura elektronikoaren bidez eta sartu 67x ereduan.

https://zergabidea.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/HGFZergaBideaWEB/login?locale=eu_ES

4. Bete 67x eredia horrela:

- ❖ **Subjektu pasiboa:** dohaintza jasotzen duenaren datuak.
- ❖ **Eskualdatzailea:** dohaintza ematen duenaren datuak.
- ❖ **Ondasun eta eskubideen benetako balioa:** emandako kopurua.
- ❖ **Ordaindu beharreko kuota:** 3/1990 Foru Arauan ezarritako eskalaren arabera kalkulatzen da (lurralde erkideko araudia aplikatzen denean izan ezik). Araudia eta informazio guztia zergen webgunean duzu.
- ❖ **Aurkeztu:** Lauki guztiak bete ondoren, sakatu **aurkeztu** botoi urdina ordaintzeko eta dokumentazioa eransteko.

5. Emaitza ordaintzekoa bada, egin ordainketa-pasabidearen bidez:

Autolikidazioa ez da aurkeztutzat joko harik eta diru-sarrera bitarteko elektronikoen bidez egin arte, **ordainketa-pasabidea** erabilita. Kontuan izan ordainketa-modalitate hori banku-erakunde jakin batzuetako bezeroa bazara soilik erabil daitekeela.

6. Erantsi agiri guztiak aplikazioaren bidez:
